# 2015-2016 ikasturterako beken deialdi orokorra argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean

*Laguntzak urriaren 31 arte eskatu ahalko dira*

Lunes, 21 de septiembre de 2015

Nafarroako Aldizkari Ofizialak 2015-2016 ikasturterako beken deialdi orokorra argitaratu du astelehen honetan. Derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleentzako bekak dira, eta 3.629.104 euroko gastua dute. Beka horiek urriaren 31 arte eskatu ahalko dira.

Nafarroako Gobernuaren ikasteko laguntzak eta bekak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak (abuztuaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) edo Eusko Jaurlaritzak deitutakoekin osagarriak dira.

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako ebazpena deialdiaren barneko ikasketak zehazten ditu, zer ikastetxetan ikasi beharko den, onuradunak eta eskatzaileak nahiz familia-unitateko gainerako kideek bete beharreko baldintzak, ematen diren beka-edo laguntza-motak, hainbat ikasketetarako baldintza akademikoak, datuak bildu eta lagatzeko informazioa, betebehar ekonomikoak, beka eta laguntzak jasotzea eta haien zenbatekoa, emate eta ukatzeak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, eskaerak aurkezteko epea eta era, ebazpena eta erreklamazioak, beken ordainketa, laguntzak baliogabetzea, edo informazioa.

Tuterako Herritarrentzako Arreta Bulegoak ere hezkuntzako beka-deialdien gaineko informazioa ematen du.